

Ondarrutarrok *irabazle!*

herri
programa



2015-2019

 **ehbildu**



>> zerrenda



Josu
Arrizabalaga Badiola



Rakel
Elu Bengoetxea



Zunbeltz
Bedialauneta Ibaibarriaga



Bisit
Beiro Badiola



Txomin
Etxaburu Solabarrieta



Eneritz
Basurko Pagoaga



Unai
Barrenetxea Gurrutxaga



Iñaki
Lersundi Arrizabalaga



Idurre
Ibazeta Lertxundi



Leire
Beitia Anabitarte



Urki
Olaetxea Arkotxa



Arantza
Atxurra Aranguren



Mikel
Aramaio Basterretxea



Arantza
Buegoa Agirregomezkorta



Loren
Arkotxa Meabe



Edurne
Aramaio Egurrola





>> editoriala

Esku artean duzun hautes programa hau, modu ezberdinez hainbat herritarrek egingako ekarpenekin dago osotua. Negutik udaberrira, Ondarru Danon Artin, Ondarrun Hari Gara ekimena martxan jarri eta hainbat espazio zabaldu ditugu, datozen lau urteetan Udalera eramango ditugun ideia eta proiektuak jasotzeko. Elkarriketa, eztabaida, adostasuna eta harremana ditu ezaugarritzat. Ehundaka herritarrekin, ehundaka ordu berbetan egotetik ateratako emaitza da. Udal jardueraren ardatza izango da herritarren parte hartzea eta horixe isladatzen du programa honek.

Lau atal nagusitan 123 neurri zehatz proposatzen ditugu, helburu bakar batekin; herritar guztiok hobeto bizitzeko herri justu eta solidarioagoa egiten joatea. Datozen lau urteek ere, iragan direnen lepotik izango dute burua ziurrenik. Krisi gisa izendatuz estali nahi izango dituzte gutxi batzuen onurarako eta gehiengoaren kalterako hartzen diren hainbat neurri. Gehiengo horrentzat arituko da EH Bildu Udaletik ere, Eskualdean garapena

eta enplegua lehentasun, gaizkien pasatzen ari direnei zuzendutako, laguntza, zerbitzu eta neurriak ezarriz.

Horretarako konpromisoa hartzen dugu EH Bildu osotzen dugun gizon emakumeok eta Ondarruko herritar, elkarte, taldeei bidea guztion artean egitera dei egiten diegu. Ondarroak ondarrutar guztion beharra du, ez baitago inor gure arazoez gu geu baino hobeto jabetzen denik. Udal zereginetan ariko den EAJri ere zentzu berean luzatzen diogu eskua; Ondarroarentzat garrantzitsuenak diren proiektuak adostu eta horien alde elkarlanari ekin diezaiozun.

Udal zereginetan murgiltzeko ezinbesteko osagaiak diren esperientzia eta freskotasuna darion taldea da EH Bilduk aurkeztzen duena. Herritar guztiontzat hobea izango den Ondarroa eta bake eta justiziatik hurbilagoa egongo den Euskal Herria ipar orratz, ilusio eta konpromisoaz gainezka ekingo diogu 2019rarteko ibilbideari. Hori bai, guztion laguntza ezinbestekoa izango da.

EH Bildurekin ondarrutarrok irabazle!!!

HERRI PROGRAMAREN ARDATZAK

<i>I.- DENOK PARTE HARTU DENOK ERABAKI</i>	4
<i>II.-ONDARRU. EZBERDINEN ARTEKO PLAZA</i>	6
<i>III.- HERRITARRENTZAKO ONDARRU. BIZI ETA LAN EGITEKO HERRIA</i>	8
<i>IV.- HERRI NORTASUNA. HERRI BIZIA</i>	10



DENOK PARTE HARTU **DENOK** ERABAKI



Udala da herritarrongan gertuen dagoen administrazioa. Udalak herritarron zerbitzura egon behar du. Eta honetarako, herritarrok udalaren parte bilakatu nahi ditugu, euren egunerokoan eragiten dizkioten erabakien jabe izan daitezzen.

Beraz, herritarrek protagonista izateko bidean, parte hartzea dugu udal jardueraren ardatza. EH Bilduk parte hartzea eraldaketarako tresna gisa ulertzen du. Herritarren parte hartzeak eraldatzailea eta eraikitzailea izan behar du. Erakundeetatik informazio egoki eta gardena eman behar da, eztabaidatzeko eta erabakietan eragiteko aukerak sortuko dituen, horretarako erakundeek boterea konpartitu behar dute.





PROPOSAMENAK:

- 1 **Parte hartze eta informaziorako** martxan jarritako bitartekoak indartu; Auzo eta kaleetan herritarren eta udal ordezkarien arteko kale batzarrak, kale ibilaldiak, Udal Barriak eta telefono eta buzoi zerbitzua.
- 2 **Interes herritarra edo eztabaida** pizten duten udal gaien inguruan erabakitzeke, herri galdeketen aldeko apostua egiten dugu.
- 3 **Zeledonio Arriola** eraikinaren habilitazioa lortzeko ahaleginak egin ondoren eraikinari eman beharreko funtzioa erabakitzeke prozesu parte hartzailea.
- 4 **HAP0 (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra).** Herritarren parte hartzea bermatu Plan Orokor berriaren prozesuan.
- 5 **Parte hartzea** udal jardueraren atal garrantzitsuenetakoa izango da. Lehen aldiz, Herritarren Parte Hartzerako zinegotzia izendatuko da.
- 6 **Aurrekontuak** ezein erakundek hartzen duen erabaki garrantzitsuenak dira. Guztiona den dirua zertara bideratuko den erabakitzeke Aurrekontu Parte Hartzaileak sustatuko dira.
- 7 **Udaleko batzorde eta plenoak** irekiak nahi duen ororentzat.
- 8 Horretarako, **Demokrazia Zuzeneko Araudia** egin eta onartuko da.
- 9 **Telesforo Urrestik** Udalari utzitako akzioen informazio eguneratua emango da epeka.
- 10 Informaziorako **panel elektrikoak** jarriko dira.





ONDARRU. EZBERDINEN ARTEKO PLAZA

“

Berdintasuna, elkartasuna, errespetua, askatasuna, justizia soziala, aniztasuna, laikotasuna, giza eskubideak, demokrazian sakontzea... gure balio politikoak dira eta hauen arabera lan egiten jarraituko dugu. Norbanakoaren duintasunetik, aukera berdintasunetik soilik izango da Ondarroa ezberdinen arteko plaza.

Ondarroaren aniztasuna aberastasun ikurra da eta horrela ulertzen dugu. Jatorri anitzetakoak, izaera sexual anitzetakoak, adin ezberdinetakoak, giza talde zigortuak... guztiok daukagu duintasunez bizitzeko eskubidea, elkarbizitza da gakoa guztiok lekua izango dugun herria nahi badugu.

”





- 11 **Ahalduntzea eta parekidetasunaren** aldeko gune eta taldeak bultzatuko ditugu: emakumeen kontseilua, emakume taldeak, jabekuntza eskolak...
- 12 **Tratu txarrak** pairatu dituzten pertsonen babesa emateko etxebizitza egokituko da.
- 13 **Jatorri ezberdineko** bizilagunen integrazioa-ko Harrera Plana garatuko dugu. 6 hilabeteko herrira etorri berriekin harrera ekitaldia, nora heldu diren, herriko zerbitzuak beraien eskura jarri.
- 14 **Hileta zibilak** egiteko espazioa egokituko dugu.
- 15 **Indarkeria matxistaren** aurrean irmoki erantzuten jarraituko dugu eta indarkeria jasan duten emakumeen arretarako baliabideak indartzeko neurriak hartuko ditugu.
- 16 **Hezkidetza programa** bultzatzen jarraituko dugu, gaztetxoekin egiten den lanketaz gain, guraso eta irakasleekin egiten den lana indartuz.
- 17 **Etxelila** proiektuan sakondu. Udala eta Mugimendua Feministaren arteko elkarlanean
- 18 **Sexuen arteko aukera** berdintasuna lantzeko gizonentzako programak sustatzen jarraitu herriko talde zein norbanakoekin.
- 19 **Edozein politika publiko edo ekimen** egiterakoan emakumeen beharrak, arazoak eta interesak aintzat hartu behar dira. Horretarako berdintasun sailaren eta gainontzeko sailen arteko koordinazioa indartuko dugu; ordezkari politiko, teknikari eta udal langileen formazioa landuz.
- 20 **Kontratazioetan eta diru-laguntzatan** klausalak, hau da, berdintasun-irizpideak ezarriko ditugu, baita segimendurako adierazleak ere.
- 21 **Komunikazioan** hizkuntza eta irudi ez sexistak eta inklusiboak erabiliko ditugu, diskurtsoa eta iruditegia landuz.
- 22 **Aniztasun afektibo-sexualaren** errealitate ezberdinak askatasunean bizitzeko bermeak emateko neurriak sustatuko dira.
- 23 **Jendarte**an orohar, parekidetasunaren aldeko eta bestelako harreman eredu baten aldeko kontzientziazioa bultzatu eta gure egunerokotasuna definitzen duten egitura eta harremanen ikuspegi kritikoa sustatu herriko talde eta norbanakoekin
- 24 **Aniztasuna eta elkarbizitzarako** prozesua martxan jartzea.
- 25 **Arrazakeria eta xenofobiaren** aurkako jarrera garbia erakutsiko dugu
- 26 Jatorri ezberdineko bizilagunen elkar **ezagutza eta partaidetza** sustatzeko gunea edo foroak sortuko dugu, herriko eragile desberdinen arteko topalekua.
- 27 Jatorri ezberdineko bizilagunei **errolatzeko** erraztasunak emango zaizkie.
- 28 Jatorri ezberdinetako bizilagunen **integrazioa** sustatzeko euskara doan ikasteko aukerak emango dira.
- 29 **Lankidetza eta politika internazionalista** bilerdolan garatuko ditugu: Egungo gizartean elkartasuna eta balore eraldatzaileak eta justizia soziala bultzatzen duten munduko borroka eta prozesuak lagunduz.
- 30 Gurea bezala askapen nazionalerako borrokan dauden herriei elkartasuna bultzatuko da.





HERRITARRENTZAKO ONDARRU. BIZI ETA LAN EGITEKO HERRIA



Enpleguaren sorrera lehentasun, Ondarroa eta Lea Artibairen garapen ekonomikoa sustatzea izango dugu helburu. Gure eskuldearen garapen sozioekonomikoa behetik gora hausnartu, eztabaidatu eta adostuko dugu, jada martxan diren eragile ezberdinekin, hala nola, Azaro Fundazioa, Garapen Agentzia, Mankomunitatea...

Ekonomia eredu honek aspalditik erakutsi digu ez duela pertsona guztion bizi kalitatea hobetzeko balio. Atal honetan, bizitza duina izateko, baliabideak pertsonen zerbitzura jarri behar direla aldarrikatzen dugu. Etxebizitza politikak, enplegu politikak, politika ekonomikoak, gizarte zerbitzuak. Hartara, ogasun sistema eta laguntza sistema justuak ezartzea beharrezkoa da.

Pertsonen ongizatea, espazioaren eta baliabideen kudeaketa egokiarekin ere badago lotua. Nola eratzen dugun gure herria, sortzen ditugun ekipamendu eta azpiegiturekin. Kontsumitzeko, mugitzeko erabiltzen ditugun baliabideen erabilera jasangarriagoa egitea ezinbestekoa delarik.

EH Bilduk, gure bizi kalitatea helburu, herri jasangarriago baten alde egiten du, herritar guztiek gozatu ahal izateko moduan garatuko dutena, gune publikoa demokratizatuko duena eta ingurumenaren begirunea izango duena.

- 31 Ondarroaren Garapenean oinarritzekoak diren baina Udal konpetentziak gainditzeko dituzten gaitetan, herritar eta beste alderdiekin proiektuak finkatu ondoren, dagokien erakundeetan herri interesak defendatu eta kudeatzeko. (Azpiegitura nagusiak, errepideak, garraio publikoa, portua eta arrantza lonja,...)
- 32 Herriaren sustapen sozioekonomikorako tresna plangintza egokia denez, gure konpromisoa adierazten dugu Ondarroa 2020 egitasmoarekin. Dagoeneko, herriko sektore ezberdinetako jendeak, 3 foro ezberdinetan (arrantza, ostalaritza-turismoa, jarduera berriak) burututakoei eta ezarritako ibilbideari sustengu eta bultzada eskainiko diogu.
- 33 Arrain Lonja funtzionalaren eraikuntza prozesua eta ondorengo kudeaketa ereduaren eragin
- 34 Alokairua sustatzeko neurriak
 - Alokairuzko udal parkea osatzeko, hirigintza hitzarmen bidez etxeak eskuratu eta alokairura bideratu.
 - Udal alokairua norbanakoaren diru sarreraren arabera ezarriko da.
- 35 Martxan den borondatezko atez ateko hondakin bilketa sisteman sakondu, gero eta herritar gehiagok parte har dezaten.
 - 2019rako %70eko birziklatze tasa helburu, hondakinen bilketareko sistema aukeratu herritarren oneritiaz.
- 36 Tasa eta prezio publiko progresiboak – Bakoitzaren diru sarreraren arabera ordaintzeko, tasa eta prezio publiko progresiboak aplikatzen jarraituko dugu: polikiroldegian, musika eskolan...
- 37 Zergak ordaintzeko dirulaguntzak – Baliabide ekonomiko gutxi daukaten familientzat zergak ordaintzeko gaur arteko dirulaguntzak bideratu
- 38 Adinekoen plana martxan ipiniko dugu – Herriko adineko guztiei zerbitzu guztiak heltzen zaizkiela ziurtatzeko, Gizarte Zerbitzuetatik bisitak egingo dizkiegu 80 urtetik gorako herritar guztiei.
- 39 Arazo fisiko edo psikikoak dituzten gaztetxoaren guraso eta familiekin elkarlana sakonduko dugu, herriko ikastetxe eta gainerako erakundeak egoera berezietaz jabetu eta sozializatuta, denon bizimodua erraztu ahal izateko.
- 40 Aparkalekuen arazoari irtenbidea emateko aukera egokienak aztertu ditugun muga ekonomiko eta lurzoru mugak kontuan izanda.
- 41 Kamiñazpin, Txomin Agirre ikastetxearen azpiko aparkalekuei behin betiko irtenbidea eman.
- 42 Eskualdeko garapen eragileekin harreman, eta elkarlan iraunkorra.
- 43 Ekonomia planak egingo ditugu barne sareak sustatuz.



- 44 Garapen Sozioekonomikoari Udalean lehentasuneko leku ematea. Garapen Sozioekonomikoak Zinegotzi eta Batzorde propioak izango ditu.
- 45 Ondarroako eta Eskualdeko Garapen sozioekonomikoaren inguruan aritzen diren beste erakunde, zerbitzu eta eragileen funtzioen informazioa zabaldu eta herriratu.
- 46 Etxebizitzaren egoeraren azterketa burutuko da, zenbateko beharra eta eskaria dagoen eta zenbateko eskaintza, errealitateari erantzuteko.
- 47 Birgaitzeko diru faltan dauden etxe hutsen jabeei, etxe hutsak udalaren bitartez konpontzeko aukera eman, udalak alokairu sozialean urte batzuetan zehar jartzearen truke.
- 48 Etxebizitza hutsak erabilgarri jartzeko neurriak
 - Etxebizitza hutsen udal zentsua osatu.
 - Etxebizitzen okupazioa eraginkorra bultzatzeko, etxebizitza hutsei udal tasen (IBI eta gainontzekoak) errekaraguak aplikatzeko neurriak hartuko dira.
 - Alde Zaharrerako Plan Bereziak eskaintzen duen aukera baliatuz, alde zaharra berri eta gaztetzeko planteamenduak burutu.
- 49 Etxebizitzak birgaitzeko neurriak
 - Efizientzia energetikoa, ingurumenaren zaintza, irisgarritasunari eta segurtasunari lotutako birgaitze eskuhartzeak sustatuz eta lagunduz.
 - Osoko birgaitzea, ez da ohiko etxebizitzetan oinarrituko, bazik eta eraikin eta etxe-uharte osoak kontutan hartuz. Giza-koherentzia eta hirigintza-koherentzia mantentzeko.
 - Zaharberritze programa propio eta berezia landuko da Alde Zaharreko etxebizitza eraikinetarako.
- 50 Administrazioaren harremana hirugarren eragileekin, klausula sozialek zehaztua izango da.
- 51 Mugikortasunean, oinezkoa, bizikleta eta garraio publikoa lehenetsiko dira.
- 52 San Inazio edo Erribera kaletik Igogailua Kale handira.
- 53 HAPO (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra): Udalerriek hirigintza antolatzeke erabiltzen duten oinarritzko tresna izanik, Plan Orokorra diseinatu eta hasiera eman.
- 54 HAPO-Hirigintza Aholku Batzordea: oinarriak, irizpideak jarri osaketarako, partehartzeko, funtzionamendurako, eskumenak...Udal Hirigintza Aholku bazardearen egungo ordenantza berrikusi.
- 55 Energia aurrezteko, LED argiak ipini herri guztian
- 56 Udala energia berriztagarrien kontsumo kooperatiba baten kide egitea
- 57 Alleriko padura berreskuratu
- 58 Larruskainen baso autoktonoa sortzen jarraitu
- 59 Zaldupen errekar botatzen diren ur zikinak araztegiara konektatu
- 60 Plan Orokorrean paisajea kontuan hartu, interes paisajistikoa duten espazioak berreskuratu eta zaindu. Lurra erosi paisaia eta ekosistemak hobetzeko.
- 61 Konpostaje planta bat eskualdean
- 62 Atxazpiko zaborteja berreskuratzen jarraitu
- 63 Kaleko zakarrontziak modu selektiboan ipini
- 64 Etxeko gauza txikiak birziklatzeko gunea: DVDak, Cdak, mobilak...
- 65 Zaharren egoitzan eta jantokietan, hemengo produktuak lehenesteko bitartekoak jarri.
- 66 Iturri naturalak berreskuratu
- 67 Eskolentzako dirulaguntzak mantendu, ingurumena zaintzen jarraitzeko
- 68 Txakurren kakarik ez egoteko kanpaineekin jarraitu.
- 69 WIFlaren inguruko araudi bat, eraikin publikoetarako
- 71 Elektrizitate torreak lurperatzen jarraitzeko lan egin
- 71 Kotxea konpartitzeko kanpainak
- 72 Ongizatean herritar ezberdinek izan ditzaketan arazoei aurre egiteko "Sentsibilizazio kanpainak" eta "formazioa" egiten jarraituko dugu.
- 73 Nagusien egoitzetan alkar laneko egitaraua zehaztu eta eurekin batera lanean jarraituko dugu .
- 74 Herriko Oinarritzko Gizarte Zerbitzu gehiago eta hobeagoak eskaintzeko bideak jartzen jarraituko dugu (Etxez-Etxeko Laguntza-Familiei eta Adin Txikikoei laguntza- Menpekotasun-Diskapazitate zein Exklusio arriskuan dauden pertsoenei laguntza, laguntza juridikoa eta psikologikoa).
- 75 Anbulategiaz eta Gizarte Zerbitzuekin alkarlana bideratuko dugu, sarea eginez herritar guztiok, alkar zainduaz, bizi kalitatea hobetzeko.
- 76 Kalera ezin irtenda daudenei, kalera irtetzeko laguntza programaren lanketan sakonduko dugu.
- 77 Etxekaleratzeak sahiesteko legealdi honetan onartutako Protokoloan sakondu egingo da.
- 78 Irisgarritasun irizpideak bermatzeko baliabideak jarriko ditugu ahal den neurririk handienean.



HERRI NORTASUNA HERRI BIZIA



kalitate osasuntsua lortzeko giltzarri delarik. Hezkuntza (formala eta ez formala) da nortasunaren oinarri. Eskolatik harago doan prozesua izaki, une eta espazio ezberdinetan, bizitza osoan ematen den prozesua da. Kirola eta kultura ere hezkuntzaren baitan ulertzen ditugu; horiek transmititzen duten balore zein nortasunak edonoren bizitzan duten garrantziaz jabeturik.

Herri bizia, kulturen aberatsa izaten jarraitzea da EH Bilduren nahia. Euskaldun izatetik, munduari irekia. Zer garen, nondik gatozen argi dugu; etorkizuna, bakean, justizian eta herritarren borondatean oinarrituta egon behar dira. Euskal Herriko gatazka politikoaren ondorioak gainditzeari begira, Ondarroako Udala subjektu aktibo eta konprometitua izango da.

Nortasun propioa duen herria dugu Ondarru. Euskara lehentasunezko hizkuntza dugu eta herri nortasunaren funtsezko osagaia, ondarrutar hizkera. Nortasuna aldiz, osagai gehiagorekin elikatzen den zerbait da. Kultura entretenimendu soila baino gizarte baten garapenerako ezinbesteko tresna da, herritarren eraketa eta ahalduntzea bilatu behar dituen, herritarrek sortzaile eta parte hartzaile eginaz. Kirola dugu beste ezaugarrietako bat; lehiakortasunetik at, adin guztiei bermatu behar zaie kirol praktikatuko baldintza duinak, bizi



- 79 **Euskara** ondarrutarren artean ikur bateratzaile bilakatzea.
- 80 Herritarrek **edozein leku nahiz egoeretan** euskaraz lasai hitz egiteko prestatzea.
- 81 **Herriko ondarea** transmititzeko proiektua. Herri kurrikuluma osatu eta ikastetxeetan erabili ahal izateko aplikazio didaktikoa egin.
- 82 **Herriko haur eta nerabeentzako** instalazio eta proiektuak berrikusi eta indartu; Jolastokiak, jolas parkeak, gazte lekua, ludoteka...
- 83 **Euskal preso eta iheslari politikoen** etxeratzearen eta gainerako eskubideen alde jardungo dugu.

- 84 **Kultur ekimenak** gauazatzeko azpiegiturretan inbertitu eta herritar eta taldeen eskura jarriko ditugu.
- 85 **Kultur plan** estrategikoa diseinatu. Diagnostik hasi, helburuak finkatu eta pausoak definitu.
- 86 **Kirol batzordean** abian jarri diren egitasmoak jarraipena eman: kirol agenda, buletina, ikerketa beka, kirol gala, kirol oporraldiak, ibilaldi osasungarriak, kirola hondartzan...
- 87 Udal **futbol zelaiaren** berritze prozesuarekin jarraitu.
- 88 Herriko **ikastetxeen** arteko batzordea sortuko dugu.



- 89 **Egia, justizia eta erreparazioaren bidean Ondarruko Oroimen Historikoaren Mapa** osatzea proposatuko dugu.
- 90 **Herri hizkera** bultzatzeko kanpaina eta bitartekoak.
- 91 **Euskara** erabiltzeko eskubidea dugula kontzientzia hartzeko ikastaroak...
- 92 **Erdal** hizkuntzetako kultur kontsumoa aukerakoa izanda ere, euskararena ardatz izatea.
- 93 **Aisialdian** euskararen erabilera bultzatea (sozietateteetan, ikastetxeetako jolas tokietan, lanean...)
- 94 **Kontzientziatik jarreretara** jauzia ematea euskaraz bizitzeko eskubidea gauzatzeko. Egoera ezberdien aurrean jarrera honi eusteko asertibitatea lantzea.
- 95 Euskarazko **kultur kontsumoa** bultzatzea.
- 96 **Euskaltzaleen sarea** osatzea.
- 97 **Herritarrak** arlo honen inguruan batzen gaituzten ekimenak indartzea.
- 98 **Euskara Batzordea** indartzea.
- 99 **Atzeritarrekin** ere lehen hitza eta hurrengoak euskaraz izatea (atzeritarra ≠ erdalduna)
- 100 Euskara ikasteko **laguntzak** eskuratzeko bideak erraztea.
- 101 **Herri hizkera** arautzea.
- 102 **Guraso erdaldunek** euskaraz ikasteko laguntzak eskaintzea.
- 103 **Lan mundua** euskalduntzeko urratsak ematea (merkataritza, aseguruak, banketxeak, zerbitzuak...)
- 104 **Udal funtzionamendua** %100 euskaraz izatea.
- 105 **Osakidetzan** zerbitzua euskaraz emateko udaletik eragitea. Horretarako herriko osasun etxearekin urratsak eta konpromisoak adostea.
- 106 **Idatzizko** euskara bultzatzea (irakurri, idatzi...)
- 107 **Ondarrutar** jatorra, egitura, berbak, esaerak... zaindu eta erabili
- 108 **Herri hezitzailearen** politika sustatu.
- 109 **Haur eta nerabeen** eskubideak bermatzeko plana.
- 110 **Haurren parte hartzean** oinarritutako programak.
- 111 **Guraso eskolak.** Ikasteko, hausnartzeko, eztabaidatzeko gunea sortu.
- 112 **Lomcerik** gabeko herri izendatu eta borroka horretan inplikatu
- 113 **Kultura sortzailea** eta partehartzailea bultzatuko dugu, herritik eta herriarentzat.
- 114 **Udala** eta taldeen harreman administratiboa errazteko bitartekoak jarriko ditugu: informazio, gidak...
- 115 **Udalarenak ez diren** eta kultur ekintzetarako egokiak izan daitezkeen gunek identifikatu eta erabilerarako hitzarmenak adostu.
- 116 **Kultur talde** eta eragileen elkargune izango den kultur foroak antolatu, eztabaida elkarrezagutza eta elkarlanerako.
- 117 **Herriko eta eskualdeko** kultur sorkuntza lanak indartzeko eskualde zirkuitua sortu.
- 118 **Guzur Etxea** sormen espazio modura indartu eta zabaldu
- 119 **Herriko kirol** taldeentzako diru-laguntza politika indartu.
- 120 **Kanpaina bereziak** landu: kirol jarduera ezberdinen topaketak, emakumeak eta kirola, euskal selekzioaren aldeko dinamikak, guztiontzako kirola...
- 121 **Zirkuitu bio osasungarriak** jarri herriko beste leku batzuetan
- 122 **Gazteentzako fitness** gunek kalean.
- 123 **Zaldupeko Anexoa** kirol egitasmoa abiatu. Gune horrek izan beharreko erabilera hausnartu eta zehazteko, herritar parte hartze prozesua.





PROGRAMA ELECTORAL

“ Este programa electoral que tienes entre manos, ha sido elaborado a partir de la aportaciones ciudadanas de ondarreses y ondarresas. Durante el invierno y la primavera hemos desarrollado la iniciativa “Somos Hilos, Tejiendo Ondárroa”, para abrir espacios en los cuales recoger las ideas y proyectos que desarrollaremos en el Ayuntamiento durante los siguientes cuatro años.. El resultado de esta iniciativa se refleja en este programa, que sitúa la participación ciudadana en el eje de la actividad municipal. ”

Proponemos 123 medidas concretas, agrupadas en cuatro ejes principales y con un objetivo común: la consecución de un municipio más justo y solidario, en el que todas y todos vivamos mejor. Los siguientes cuatro años sufriremos seguramente la pauta de los anteriores. Lo que llaman crisis, y que no es otra cosa que un conjunto de medidas destinadas a que los poderosos mantengan sus privilegios en detrimento de la gran mayoría de la población, especialmente de sus estratos más desfavorecidos, continuará. Por lo que EH Bildu trabajará en favor de esta gran mayoría, también desde el Ayuntamiento, implantando medidas, servicios y ayudas para los sectores más afectados, dando prioridad a las políticas de empleo y el desarrollo comarcal.

Las mujeres y los hombres que formamos EH Bildu adoptamos este compromiso, y hacemos un llamamiento a los ciudadanos y ciudadanas de Ondárroa, a las asociaciones y grupos diversos, para que hagamos ese camino juntos.

Con experiencia y frescura, ilusión y compromiso se presenta el equipo de trabajo de EH Bildu. Iniciamos ruta hasta el 2019 por una Ondarroa mejor para todas y todos y una Euskal Herria en paz y justicia como rumbo y con sitio para quien quiera embarcarse.

TODAS Y TODOS PARTICIPAMOS, TODAS Y TODOS DECIDIMOS

El Ayuntamiento es la administración más cercana a los ciudadanos y las ciudadanas, y debe estar a su servicio. Por ello, queremos que vayan formando parte del Ayuntamiento, y de esta manera, decidan en las cuestiones que les/nos afectan cotidianamente.

Desde EH Bildu entendemos que la participación ciudadana es una herramienta de cambio. Esta debe ser constructiva y transformadora. Desde las instituciones se debe proporcionar información adecuada y transparente, que dé a los ondarreses y ondarresas la oportunidad de participar y de influir en las decisiones.

- **Reforzar** las medidas implantadas para la participación y la información; reuniones de barrio, paseos vecinales en los barrios, Udal Barriak, servicio de buzón y teléfono.
- Apuesta por **consultas populares** en temas que susciten interés y debate ciudadano.
- Abrir un **proceso participativo** para decidir la función del edificio **Celedonio Arriola**.
- Garantizar la participación de la ciudadanía en las decisiones del **Plan General** (PGOU).

ONDARROA, PLAZA DE LA DIVERSIDAD

Igualdad, solidaridad, respeto, libertad, justicia social, diversidad, laicidad, derechos humanos, profundizar en la democracia... Son nuestros valores políticos, y seguiremos trabajando en base a estos principios. Solamente desde la dignidad personal y la igualdad de oportunidades será posible que Ondarroa sea una plaza de la diversidad.

Entendemos que la heterogeneidad de la población ondarresa constituye una riqueza que hay que poner en valor: procedencias diversas, múltiples identidades sexuales, de diferentes edades, sectores sociales castigados... Todos y todas tenemos derecho a vivir con dignidad, y la convivencia es la clave para conseguir un pueblo en el que todos y todas tengamos cabida.

- **Fomentar foros y grupos** que trabajan en favor del empoderamiento y la igualdad; Consejo de la mujer, grupos feministas, escuelas de empoderamiento...
- Habilitar una **vivienda auxiliar** para personas víctimas de la violencia de género.
- Elaborar de un **Plan de Acogida** para las personas migrantes que hayan venido a Ondarroa.
- Habilitar un espacio para la celebración de **funerales civiles**.



ONDARROA PARA SUS CIUDADANOS/AS. VIVIR Y TRABAJAR EN ONDARROA

El desarrollo de Ondarroa y de la comarca de Lea Artibai, será nuestra prioridad durante esta legislatura, y nuestro objetivo principal, la creación de empleo. Todo esto, en colaboración con agentes que están ya en marcha (Fundación Azaro, Agencia de Desarrollo, Mancomunidad...) en esta línea, porque no existe agente alguno que vaya a venir de fuera a solucionar nuestros problemas.

El bienestar de las personas, también está ligado a la gestión adecuada de los espacios y los recursos, a cómo construimos nuestro pueblo, a los equipamientos e infraestructuras de los que disponemos...

Con el objetivo de mejorar nuestra calidad de vida, EH Bildu apuesta por un municipio más sostenible, y que se desarrolle de modo que todos los ciudadanos y ciudadanas podamos disfrutar de él, que democratice el espacio público y sea respetuoso con el medio ambiente.

- Compromiso de **acordar** entre **diferentes sectores y partidos**, aquellos proyectos supramunicipales que consideremos esenciales para el desarrollo económico de Ondarroa, para después defenderlas conjuntamente ante otras instituciones.
- Compromiso para seguir la línea de trabajo enmarcada dentro del plan **Ondarroa2020** ya en marcha. Compromiso con los tres foros de trabajo (pesca, hostelería-turismo, nuevas actividades empresariales).
- Intervención para la definitiva construcción de la **Lonja funcional de Pescado**.
- Medidas para fomentar el **alquiler de la vivienda**:
 - Convenios de urbanismo encaminados a la creación de un parque de alquiler.
 - Establecimiento de los precios de alquiler en viviendas de carácter municipal, en base a los ingresos de cada persona. No superiores al 30% y 15% en alquileres sociales.
- Ahondar en la recogida selectiva de **residuos orgánicos** para alcanzar una tasa de reciclaje del 70%.
- Aplicación de **tasas y precios públicos** progresivos en base a ingresos en la escuela de música, polideportivo...
- **Ayudas** para el **pago de impuestos** para personas-familias con pocos recursos económicos.
- Activación de un **plan para mayores** de 80 años, con el fin de garantizar todos los servicios sociales disponibles.
- Ahondar en el **trabajo conjunto** con las familias de personas con problemas físicos y psíquicos, de cara a un mejor calidad de vida.

LA PERSONALIDAD DE UN PUEBLO DINÁMICO

Ondarroa es un pueblo que tiene personalidad propia. El euskara es la lengua principal; el habla ondarresa, un elemento fundamental de nuestra identidad. Esta identidad, sin embargo, se alimenta de otros ingredientes. La cultura, más allá del simple entretenimiento es un instrumento esencial para el desarrollo de la sociedad, y se debe encaminar hacia la construcción y el empoderamiento de los ciudadanos y ciudadanas, convirtiéndolos en agentes creativos y participativos. La práctica del deporte es otra de las características de nuestra sociedad: más allá de la competitividad, hay que garantizar unas condiciones dignas para la práctica del deporte a todas las edades, siendo como es una de las claves de una vida saludable. La educación (formal y no formal), por su parte, es la base de la personalidad. Siendo un proceso que va más allá de la escuela, se desarrolla en sitios y espacios diferentes, a lo largo de toda la vida.

El objetivo de EH Bildu es que Ondarroa siga siendo un pueblo vivo. Euskaldun, y abierto al mundo. Tenemos claro lo qué somos y de donde venimos; el futuro, debe estar basado en la paz, la justicia y la voluntad popular. Con los ojos puestos en la superación de las consecuencias del conflicto, el Ayuntamiento de Ondarroa será un sujeto activo y comprometido.

- Convertir el **euskera** en símbolo **integrador** de las y los ondarritarras.
- **Empoderamiento** de los/as ciudadanos/as para la utilización del euskera en todos los lugares e instancias.
- Elaboración de un **Curriculum Local** para su aplicación en los distintos centros educativos.
- Reforzar y fomentar **espacios para el ocio** de las niñas y niños y adolescentes: parques, Gazte Leku, Ludoteca...
- Políticas en favor de los **derechos de las presas/os y refugiadas/os** políticas vascas.
- **Inversión en infraestructuras culturales** para poner en disposición de los diversos organismos culturales.
- Elaboración de un **Plan Estratégico Cultural**.
- Ahondar en las distintas **iniciativas** de la actual comisión de **deportes**; agenda deportiva, boletín, beca, gala deportiva, deporte en la playa, deporte vacacional...
- Seguir con el proyecto de **renovación del campo de fútbol**.



■ Lea-Artibai

Lea Artibai eskualde txikia izanik eta Bizkaiko erdigunetik kanpo dagoenez, beharrezkoa da udalerrri guztiok batera lan egitea. Guk, EHBildutik Eskualdearen aldeko apustu irmoa egiten dugu eta horretarako gaur egun eskualde berean dauzkagun bi amankomunazgoen arteko elkarlana bultzatuko dugu.

Amankomunatuta ditugun zerbitzuak herritarrentzat hurbilak eta eraginkorrak izan behar direla oso argi daukagu. Horregatik garrantzitsua da lehenengo herri bakoitzetik bere premia eta proposamenen plangintza bere herritarrekin lantzea. Ondoren, herri bakoitzean adosten dena, amankomunatutako gainerako herriein tratatu, landu eta denon artean kudeaketa gardena egiteko urrats sendoak emango ditugu.

Datozen urteotan, herri bakoitzaren nahia eta herrien arteko errespetua oinarrian izango duen elkarte lortzeko lan sutsua egingo dugu, amankomunatuta ditugun gizarte zerbitzuak eta zamarren kudeaketaz gain, beste instituzioen aurrean, nortasun handiko eskualde lez aitortzeko eta Lea Artibaiko herritar guztiontzat behar ditugun azpiegitura zein baliabide guztiak lortze aldera.



RAKEL ELU BENGOTXEA
Lea-Artibaiko Amankomunazgorako lehendakarigaia





■ Bizkaia

Bizkaitarren garaia da, herritarron garaia. Behetik gora eraikiko dugu Bizkaia barria

Iritsi da herritarrek bizitza publikoa erregulatzen duten prozesu guztien kontrola berreskuratzeko garaia. Badago eta beharra! Halabeharrez, klientelismoa, lagunkeria, zerga iruzurra edota ate birakariak bezalako hitzak gure hiztegiatara gehitu behar izan ditugu azken bolada honetan.

Bukatu da porlanean oinarritutako ekonomia-aren garaia, etengabe zorpetu gaituen garapen eredu desarrollistaren garaia, tokiko ekonomia erreala ahuldu duten finantza ekonomia espekulatzailaren garaia. Garaipen eredu orekatu, dibertsifikatu eta iraunkorrari bidea ireki behar zaio. Eraiki dezagun behetik gora Bizkaia barria!



EH Bilduk lau hankako Bizkaia barria proposatzen du:

- 1. Inor ez dadila bide bazterrean gelditu:** Pertsona guztien eskubide sozialak bermatu behar dira.
- 2. Bizitza ona helburu, trantsizio sozial eta ekologikoa:** XXI. mendeko Euskal Herriaren eredu produktiboa eta erreproduktiboa gaurdanik eraldatu behar dugu.
- 3. Gehien dutenek gehiago ordaindu:** Zerga politika progresibo eta ekitatiboaren alde egingo dugu.
- 4. Erabakiak hemen hartu. Dena erabaki dena aldatzeko:** Burujabetza behar dugu gure bizimoduetan eragin zuzena duten politika publikoak garatzeko.

JOSU UNANUE ASTOREKA
Bizkaiko Ahaldu Nagusirako
hautagaia



EMAN BOTOA



www.ehbildu.eus